

Berrigara

Denok azokara!

Liburuak, diskoak
eta bideoak salgai
San Martin plazan



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



Nissan Primera berria



Behar bezala ezagutzeak uste baino denbora gehiago eskatuko dizu

Comfort



Luxury



Sport



Elegance



ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA 1 - TF.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



Kalte eolikoa

Iñigo Iñurrategi/ Ikaslea

Mugarriluzetik hasi eta Sekillagara bitartean, haizeak nahastuta dabilta, ezin baitute ulertu giza-kiaren ahalegina berauek menderatzeko. Elgeako mendilerroan parke eolikoaren eraikuntzak aurrera darrai, eta umetatik bereziki maite izan dudun ingurunea antzaldatzen ari dira. Gertaera honen aurrean zer egin ez dakidalarik, hausnarketa egitea besterik ez zait gelditzen.

Niri neuri ez dit batere graziaz egiten parke eolikoaren eraikuntzak, esan bezala, inguru horrek esanahi berezia baitu niretzat. Dena den, onartu beharra daukat hausnarketak arrazoi sentimentalak gainditu behar dituela.

Arazoaren iturburua gure gizartearen energia beharra da. Argi indarra kontsumitzen dugu, beraz, indar hori nonbaitek sortu beharra dago. Puntu hau azpimarratzekoa da, zeren bakarren batzuek izan ezik, beste guztiok argi indarra arnasa bezela erabiltzen baitugu, momentu oro. Beraz, ez dit balio esateak argi indarraren produkzio zentruen aurka egon behar dela argi indar hori etengabe kontsumitzen dugunean, eta kontsumoa jais-teko ezer gutxi egiten dugunean. Argi indarraren beharra dugula onartzen dut.

Kontua da nola sortu indar hori. Argi indarra lortzeko hainbat bide dago, baina egungo teknologia eskutan, eta megawattio bat sortzeko metodo bakoitzak eragiten dituen ondorioak aztertuz gero, hotzean kalkulaturik, badirudi onartu beharra dagoela haize erroten erabilera. Ingurunean izan dezakeen eragin zuzena batez ere estetikoa da, eta maila txikiago batean ekologikoa, hegazti eta inguruko animaliengan sor ditzakeen kalteengatik. Kasu honetan niri gertatzen zaidan bezala, nahikoa arrazoi izan daitezke proiektuaren aurka egoteko, baina onartu behar dut nire kontsumista grinaren ordaina dela hori.

Aitor dezadan, hein batean errudun ere sentitzen naiz. Orain buruan daukadan bakarria kaltea ahalik eta txikiena

“Parke ez hain masifikatuak eraikitze moduko teknologia izango dugu 10-20 urtetan, agian beste energia iturri batzuk”

izan dadin neurriak hartzea da. Zoritxarrez, proiektua orain arte zein bidetatik joan den ikusita, eta inguruko beste adibide batzuei kasu eginez gero, orain ere ez daukat arrazoi handiegirik itxaropentsu izateko. Badirudi ingurua pistaz jositako dutela, eta ez nintzateke harrutuko ondoren edozeinendako libre geratuko balira aipatutako bideok, ingurunean sor daitezkeen kalte kontuan hartu gabe. Eta ez nintzateke harrutuko baldin eta proiektua aurrera eraman dutenek erabilitako azpiegitura zahartzen denean bertatik kendu eta inguruak orain arte izan duen itxura berreskuratzeko neurriak aurrekusi ez badituzte. Izan ere, 10-20 urtetan parke ez hain masifikatuak eraikitze moduko teknologia izango dugu, behar bada beste energia iturri batzuk, eta pentsatu beharra dago orain montatzen ari direnak ondoren erraz desmontatzeko modukoa izan beharko lukeela... Zoritxarrez, gutxi batzuen interes ekonomikoek pisu handia daukate honetan, baina nola azaldu hori Mugarriluzeko harrizarrari?

Alabitta gaineko belatxingak dioen bezala, haizeak dakarrena haizeak eraman dezala.<

■ barruan



Iñaki Suso

Vasco Navarro trenaren lagunak

“Gure elkartearen helburua trenbideaz geratzen dena mantentzea lortzea da.”

8.



Jesus Garcia

Kulturista

“Gauzak ez zitzaizkidan nahi bezala atera Espainiako txapelketan, 7. sailkatu arren”

23.



Leonardo Saiz

Gaztaina saltzailia

“Gaztainak nahiko ondo saltzen dittugu Bergaran, batez be astebukaeretan”

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1976. Azaroaren 27an inauguratu zen Errege Mintegian, haur paralitiko zerebralaren tratamendu integralerako Debagoieneko zentrua.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1410. Azaroaren 28an Gipuzkoako jauntxoaren aurka borrokan zebilen Martin De Marzanak bakea sinatu zuen.

1856. Abenduaren 1ean Baionan izenpetutako hitzarmenaren arabera, Espainia eta Frantziaren arteko mugak erabaki ziren; Isla de los Faisanes biena izango zen aurrerantzean.

1920. Azaroaren 26an "Alfonso XIII.a" itsasuntzi berriak sartu zuen Axpen. Naval lantegia itxi, eta 3.800 langile kalean geratu ziren lan barik.

MUNDUAN GERTATUA

1969. Azaroaren 24an Apolo XII.a Ilargitik Lurrera itzuli zen; EEBBetako astronautak Ilargian izandako bigarren aldia zen.

1990. Azaroaren 19an NATOk eta Varsoviako Itunak pakea sinatu zuten.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 19

12-15-19-22-25-41 (osag.16/itz.3)

Astelehena 22

1-16-25-31-33-36 (osag 5/itz.8)

Martitzena 23

9-10-30-33-34-40 (osag.17/itz.5)

Eguaztena 24

7-19-29-44-47-48 (osag.15/itz.8)

PRIMITIVA

Zapatua 20

9-23-29-45-47-49 (osag.10/itz.1)

Domeka 21 Saritzarra

2-20-33-40-43-48 (osag.21/itz.8)

ONCE

Eguakitza 19: 26.664 (194 seriea)


Astelehena 22: 85.794

Martitzena 23: 13.576

Eguaztena 24: 46.164

Eguraldia

Ilgeldoko metereologi behatokia



Zapatuan, zeru garbi xamarra. Goizaldean laino piska bat. Tenperaturek behera egingo dute. Haizea hegoaldeetik. Domekan ere zerua nahiko garbi goizaldean izan ezik. Tenperaturak berdin. Haizeak hegoaldeetik jarraituko du.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: azaroak 23



Ilbehera: azaroak 29



Ilberri: abenduak 7



Ilgora: abenduak 16

Eguzkia

Domeka, azaroak 28



Sortu: 08:18



Gorde: 17:52

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 18	11	7	29,6
Eguakitza 19	9	5	22,8
Zapatua 20	4	1	11,9
Domeka 21	3	0	14,6
Astelehena 22	5	0	0,4
Martitzena 23	8	4	3,4
Eguaztena 24	13	6	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Aurrenengo

Lehenengo, estraiñakoa. Aurrenengo aldixa batik bat.
- Ezta izango aurrenengo aldixa.

2. Txarra, eskasa; beti esaldi negatiboetan.
- Gaur enoia lanera eztauk aurrenengo gorputzaldixa ta.



Josu Okina

hamaika ikusteko jaio ginen!

Plastiko arteko haragia

Supermerkatuetan, plastikozko ontzi eta babesle barruetan egoten den haragiak 17 pikogramo (pikogramoa = 1⁻¹² gramo) dioxina ei dauka, Alemaniako CNIID laborategietako ikerlariek adierazi dutenez. Dioxina, gorputzean pilatzen joaten den substantzia toxikoa da. Giza gorputzak, gehienez, eguneko pikogramo bat barneratu dezake pisu kilo bakoitzeko.

Farmaziak

Eguakitza 26:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Zapatua 27:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Domeka 28:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Astelehena 29:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Martitzena 30:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Eguaztena 1:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Eguena 2:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Ogia

Domeka 28: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 30
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuaren Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Xabier Martinez
Azaroaren 30ean
20 urte.
Urte askotarako!
Familia eta lagunak.



Naiara De Marcos
Abenduaren 1ean
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Rakel Alonso
28an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Koadrilakoak eta
gustoko mutila...



Ane Irizar
Abenduaren 2an
14 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Lorena Elexpuru
Azaroaren 26an
2 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak eta
aiton-amonak.



Aintzane Gabilondo
Azaroaren 29an
6 urte. Urte askota-
rako! Aita eta ama.



Gorka Alegria
Azaroaren 29an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ane Motoso
Azaroaren 26an
4 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Amaia.



Leire Igarza
Abenduaren 2an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Zangitu
Azaroaren 30ean
8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Pello Otaño
Azaroaren 29an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iñaki Elkorobarrutia
Azaroaren 26an
13 urte. Urte askota-
rako! Familiakoak.

URTEURRENA

Tiburtzia Larrañaga Agirregomezkorta

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroak 28,
goizeko 11:30etan, Osintxuko elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

Datorren asteko alean,
ABENDUAREN 3a eta 16a
bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.

jaioetakoak



Nerea Odriozola
Azaroaren 26an
2 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak eta
Maialen.



Mikel Umerez
Abenduaren 1ean
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

hildakoak

Aste honetan ez dugu hildakoen berririk jaso ez Bergaran eta ez Antzuolan.

mezak



Maite Nuñez
Azaroaren 27an
4 urte.
Urte askotarako!
Nerea eta gurasoak.



Iker Murillo
Abenduaren 2an
13 urte. Urte askota-
rako! Familiakoak
eta Luka.



Maitane Aranzabal
26an 3. Urte askota-
rako! Aita Alema-
niatik, ama eta
aiton-amonak.



Cristina
Azaroaren 26an
3 urte. Urte askota-
rako! Lehenagusak
eta osaba-izebak.

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Euskal Antzerki Topaketak** Azpeitian; Maskarada taldearen "Ikaro" bihar, zapatua, 21:30etan Zelaitxo antzokian. Datorren eguakitzean, hilak 3, Hika taldearen "EuskalOFF 2,050" lanaren estreinua, 21:30etan.

MUSIKA

► **Mikel Markez eta Pako Aristiren** "Tribuaren hitz galduak" gaur, eguakitza, 22:00etan Antzuolako zipetokian.

► **Balardi Balardi** taldea gaur, eguakitza, 23:00etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

► **Arriolako Jazz Blues Jaialdia** Elorrion: gaur, eguakitza, Alemaniako Erdmann, Bachmann, Gluesenkamp hirukotea, 23:00etan, Ateneoan. Bihar, zapatua, ordu eta toki berean Big Mama Trio kataluinarrak.

► **Bergarako Musika Eskolako kontzertua** Raul Luqueren alde, datorren eguakitzean, hilak 3, 19:00etan Udal Pilotalekuan.

ERAKUSKETA

► **Karegintzari** buruzko erakusketa domekara arte Kultur Etxean.

ERAKUSKETA

Ion Suinagaren argazkiak

Non: Nahikari taberna
Noiz: azaroaren amaierara arte

Ion Suinaga bergararrak aurtengo otsailean Ekuadorren ateratako argazkiak erakusten ditu egunotan Nahikari tabernan. Bederatzi paneletan banatutako 54 irudi dira guztira. Suinagaren helburu nagusia *Ayuda en accion-Ekintzaz lagundu* gobernuz kanpoko erakundeak egindako lana ezagutzera ematea izan da. Bere hitzetan, "orain dela hiru bat urtetik naiz erakunde horretako bazkide eta aurtan Ekuadorren egiten ari diren proiektuak ezagutzeko aukera izan nuen. Hiru aste inguru eman nituen Mitad del Mundo (Quito hiriburutik gertu), Cayambe eta Napo inguruan, ohian amazonikoa hasten den lekuan, hain zuzen ere. Ez naiz oso argazkizalea, baina argazki asko atera nituen han, eta hona itzulitakoan erakusketaren ideia sortu zen. Ez dira argazki artistikoak, ezta gutxiagorik ere; gobernuz kanpoko erakundeek egiten duten lana erakutsi nahi izan dut, bestelako asmorik gabe, jendeak ikus dezan emandako laguntzak benetako beharra duten tokietara iristen direla".



Nahikarin ikus daitekeen irudietako bat.

Ion Suinagaren arabera, *Ekintzaz lagundu* erakundearen proiektuak osasuna eta hezkuntza gaitara zuzentzen dira nagusiki, eta beti ere bertako jendea da garatu beharreko proiektua proposatzen duena. Esan bezala, Nahikariko erakusketa paneletan banatuta dago, eta bakoitzean herritarren beharrei erantzuteko egindako lanaren zati bat jasotzen da. Suinagak azaldu digunez, "Ekuador zoragarria da, eta jendeak eskaini zigun harrera ere go-raipatzekoa izan zen".

► **J. A. Unzurrunzagaren** "Oliver Twist" musikaleko argazkiak Pol-Poleko aretoan domekara arte.

LEHIAKETAK

► "Zu bezalako haurrak"

Unicef erakundeak antolatutako idazlan eta argazki lehiaketa, 8 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta. Lanak abenduan zehar aurkeztu behar dira Unicef-en edozein bulegotan. Sari banaketa martxoan egingo da. Argibide gehiago 943 27 11 61 zenbakian.

► **XIII. Arrasate lehiaketak** komikia, irriti erreportajea, ipuina, poesia eta bertso papearak. Lanak entregatzeko azken eguna: otsailaren 11. Argibideak AED elkartearen, 943 77 12 28.

► **Gerriko Ikerlan Sariketa** Ikerlanaren gaia Goierriin dago.

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

GOXO-TOKI
Iraila 3. Tf. 943 76 12 95
Matsiategi 24. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

kion edozein zientzi alorrekoa izan daiteke, eta lanak (euskaraz) jasotzeko epea 2000. urteko martxoaren 17an bukatuko da. Irabazleak 500.000 pezeta eta bigarrenak 300.000 eskuratuko dituzte. Argibide gehiagorako, deitu 943 16 02 82 telefonora.

IKASTAROAK

► **Saltsa eta sevillana** ikastaroak Jam aretoan. Izen-emaitea bertan (943 76 35 81).

► **Pintura ikastaroa** (hasiera eta hobekuntza mailak) Bearteko lokalean. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. Argibideak: 656 72 44 49.

► **Yoga ikastaroa** Gloria Enaren eskutik. 943 76 11 38.

► **ICTEren "Dementzien psikoestimulazioa"** ikastaroa abenduaren 13tik 17ra bitartean, 15:00etatik 19:00etara Arrasaten. Argibideak: 943 77 16 99.

DEIAK

► **Batzoki eguna** domekan. Eguerdiko 12:30etan Monja Zaharretan meza izango da hildako alderdikideen alde, eta 14:30etan bazkaria Batzokian.

► **Alargunen** elkarteko kideen urteroko bazkaria izango da abenduaren 8an Antxoni jate-txean. Interesatuak elkartean bertan eman dezakete izena.

OHARRAK

► **Seaskako egutegiak** 400 pezetan salgai daude Jardun elkartearen eta Aranzadi Ikastolan. Jasotako dirua Nafarroa eta Iparraldeko ikastolen alde izango da.

► **Udalak** gogorarazten duenez, trasteak biltzeko kamioia hileko lehen eguaztanean pasatzen da. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira betiko tokietan.

JAIK

► **Gaztainerre eguna** domekan, 18:00etan Plazan, AEK euskaltegiak, Udal Euskaltegiak eta Jardun elkar-teak antolatuta. Trikitilariak eta abeslariak ere izango dira.

KINTADAK

► **1936an jaiotako bazkaria** abenduaren 11n Antxonin. Izen-ematea Antxonin edo Eusebio II tabernan.

► **1938an jaiotako bazkaria** abenduaren 11n Pertxan. Aurretik bisita gidatua egingo da. Izen ematea: 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) eta 943 76 42 08 (Juan Alkorta).

► **1977an jaiotako bazkaria** abenduaren 18an Zabala jatetxean. Izen-ematea Etxagi tabernan (1.000 pezetako aurrerapena).

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Novia a la fuga
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema

Agnes Browne
Eguakitza: 22:00.
Novia a la fuga
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.

De ladron a policia

Eguena: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

De ladron a policia
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

La lengua de las mariposas
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

El sueño de una noche de verano
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.

Mi gran amigo Joe

Domeka: 17:00.
Henry fool
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

Una terapia peligrosa
Zapatua: 20:00.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Amigo amado

Eguena, zine-kluba: 20:15.

NOVIA A LA FUGA

Zuzendaria: Garry Marshall.

Aktoreak: Julia Roberts, Richard Gere, Joan Cusack.
Pretty woman filmearren arrakasta errepikatu nahian, Richard Gere eta Julia Roberts aktore ezagunak berriz ere elkarlanean. Ezkontzak izugarri gustatu arren, ezkontzeak beldurra ematen dio *Maggiere*: azken momentuan beti ihes egin du. Bosgarren aldiz ezkontzera doanean, *Ike* kazetaria bertara joango da horren berri ematera...




LA LENGUA...

Zuzendaria: Jose Luis Cuerda.

Aktoreak: Manuel Lozano, Fernando Fernan-Gomez, Uxia Blanco.

Manuel Rivas idazlearen ipuin batean oinarrituta, Jose Luis Cuerda zuzendariaren (*El bosque animado*) azken filmea Eibaren ikusteko aukera. Gerra zibilak Galiziako herri txiki bateko irakaslea eta bere ikasle baten arteko harreman berezia moztuko du...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.



Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikulua, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Beheko Estaziñuaren alde azken asteotan antolatutako ekitaldien barruan, Iñaki Suso historialaria izan zen Vasco-Navarro trenbidearen historiari buruzko hitaldia ematen joan zen asteoko asteazkenean.

G. Zein da trenaren elkarten helburua orokorrean?

E. Bergarako estaziñuaren kasuan, lehendabiziko helburua estaziñua zutik mantentzea da. Eta orokorrean, trenbideaz geratzen dena mantendu dadila, eta mantentzen ez dena, berriz, gogoratu dadila. Guk bilatzen duguna ez da berriro tren jartzea; gustatuko litzaziguke, baina ez gara hain utopikoak, badakigu hori ezinezkoa dela.

G. Zelatan zaude elkarte honetan?

E. Txikitatik erakarri izan nau trenen munduak. Vasco-Navarro trenbidean, gainera, nire aitak eta aitona lan egin zuten; beraz, arrazoi sentimentalak eta gustu kontuak batzen dira. Era horretako kezka eta gustuak genituen zenbait lagun bildu ginen, eta elkarte hau sortu genuen.


G. Zergatik iruditzen zaizu itxi zutela Vasco-Navarro trenbidea?

E. Arrazoi ofiziala ekonomikoa izan zen, hau da, errentagarria ez zelako itxi zela esan zen. Hala ere, esan behar da errentagarritasun txikiagoa zuten linea askok martxan jarraitu zutela. Trenbidea itxi zen garaian arrazoi politikoak ere asko aipatu ziren, hau da, Nafarroak Gipuzkoa eta Arabarekin zituen harremanak moztu nahi zirela. Egia esan, niri iruditzen zait hainbat arrazoi batu zela: ekonomikoa, politikoak, gestio arazoak...Eta gainera,

IÑAKI SUSO

Vasco Navarro trenaren lagunen elkartekoa

“Gure helburua trenbideaz geratzen dena mantentzea da”



Vasco-Navarro trenbidearen itxieraren arrazoiak aztertu zituen Iñaki Susok.

momentuko azpiegiturak gehiago zeuden bideratuta errepideak egitera.

G. Nola uler daiteke zonalde hau hain industrializatua izanda, trenbidea errentagarria ez izatea?

E. Egia da jarduera industrial garrantzitsua zuela eskualde honek. Arazoa da, irabaziak baino handiagoak zirela galerak. Nafarroa al-

“Vasco-Navarro trenbidea ixtearen arrazoi ofiziala ekonomikoa izan zen arren, garai hartan asko aipatu ziren arrazoi politikoak ere”

deko zatiak galera handiak suposatu zituen, nahiz eta Gipuzkoako irabaziak garrantzitsuak izan.

G. Zer iruditzen zaizu eskualde honetarako dagoen tranbiaren proiektua?

E. Egia esan, ez neukan horren berri, baina ideia zoragarria iruditzen zait. Alde batetik, ekologikoa delako, eta bestetik, trafiko arazoak eta istripuak murrizteko bide aproposa izango litzatekeelako.

G. Bergarako estaziñuan dagokionean, zela ikusi nahi zenuke etorkizunean?

E. Lehenik eta behin, zutik jarraitzen duela ikusi nahi nuke, eta autobus geltoki bezala ondo dagoela iruditzen zait, hori bai, inguruak pixkat txukunduta, lorategi batzuek inguratuta ederra geratuko litzateke.

G. Zer esperientzia izan duzue zuek Nafarroan? Lortu duzue ezer?

E. Beno, ni Lizarrakoa naiz, eta han ez da inoiz estaziñua botatzeko asmorik egon. Lortu duguna da ondoan dagoen eraikin bat, garai batean kotxe-tokia izan zena, etorkizunean trenaren museo bihurtuko dutela agintzea. Bestalde, Arabako mugatik Lizarraraino trenbidea zena mantentzea ere lortu dugu, eta baita bidean dauden estaziñuak denborarekin erabilera bat ematen joatea ere. Bergararrak animatu nahi nituzke, eta esan, Beheko Estaziñua ez dela ezertarako balio ez duen eraikin bat; alderantziz, erabilera asko eman dakiokela iruditzen zait.

G. Jendea kontzientizatu dagoela uste duzu?

E. Zoritzarrez, ez. Jende heldua agian gehiago arduratu izan da gai honen inguruan, trenbidea ezagutu zuelako, eta, gainera, gaztetako kontuak ekartzen dizkiolako gogora.

Telesforo Aranzadiko urbanizazioa eta aurrekontua aztergai Plenoan

Aurrekontuan hainbat aldaketa egitea erabaki zen

Telesforo Aranzadi eta Domingo Irala kaleen artean eskailera egiteko lanak adjudikatzeko baldintza, eta aurrekontuan hainbat aldaketa egitea onartu zen asteleheneko Plenoan.



Domingo Irala eta Telesforo Aranzadi kaleen artean eskailera berrituz egingo da.

Bi kaleen arteko eskaile-
ra egiteko lanak adjudika-
tzeko lehiaketa deitzea era-
baki zuen Udaltzatzen. Egin
beharreko lanek 7.600.000
pezeta inguruko aurrekon-
tua izango dute. Eskailera
berria apirilean egitekoa
zen baina lanak atzeratuz
joan dira hasierako proiektu-
an egindako aldaketengatik.
Lanak adjudikatu ondoren,
enpresa adjudikatzailerak
45 eguneko epea izango
du lanak amaitzeko. Eskai-
lera garai batean lorategia
zegoen tokiraino zabalduko
da, eta horrez gain, Telesfo-
ro Aranzadi kalean jarle-
kuak, zuhaitzak eta farolak
jartzea aurreikusten da.

ALDAKETAK AURREKONTUAN

Bestalde, udal aurrekontuan
hainbat aldaketa egitea
onartu zen aho batez Pleno-
an. Aurreikusitako inber-
tsioetan, eguneroko beha-

rren eraginez, aldaketak
izan dira, eta, beraz, 93 mi-
lioi hasieran pentsatutako
asmoetara ez dira bideratu-
ko. Aurrekontua ajustatzeko
gastuak honako partiden
transferentzia bitartez egingo
da: azoka azpiegiturak (39.100.000
pezeta), kultur lokalak (4.732.150
pezeta) eta igerilekuak (49.800.000
pezeta). Diru hori ez da igeri-
lekuetan inbertitu, etorki-
zunean Agorrosingo kirol
instalakuntzak berrantolatze-
ko proiektua dagoelako. Igeri-
lekuak dagokienez, barruko
piztina berriak egin edo
neguan kanpokoak es-

taltzea aztertzen ari da Uda-
la. Kultur lokaletan, berriz,
hasieran aurreikusitako
baino 5 milioi gutxiago in-
bertitu dira eta, azkenik,
azoka azpiegiturara zu-
zendu beharrekoa merkatu
txikian estalitako zona bat
jartzeko izango da. 93 milioi
horiek beste partida batzue-
tara bideratuko dira, tartean
33 milioi datorren urtean
egingo den autobus geltoki
berrirako, beste 17 milioi
Antzuolatik datorren Des-
karga ibaian egin diren bi-
deratze lanetarako eta beste
10 milioi herriko hainbat
baseritara ura eruateko.

Bergarako Industrialdea
S.A.ren Administrazio Kon-
tseiluan, Bergarako Udale-
ko ordezkariak Victoriano
Gallastegi alkatea eta Jose
Antonio Etxeberria izatea
onartu zen Plenoan.

MOTORREN PLAKAK PREST

Udaletik jakinarazi digute-
nez, motorretan matrikula
plaka jartzeko eskaera egin
zutenek Udaletxean bertan
jaso ditzakete plakak. Trafiko
araudi berriaren arabera,
datorren urtarrilaren 26tik
aurrera motorretan plaka
eruatea beharrezkoa izango
da.

GORENERA iritsi gara

Giza-eskubideen alde egiteko, Amnesty International mundu guztian zabalduko dago. Eta 1998ko urritik, Juan OIARZABAL mendizaleari esker, munduko egoitzarik gorena dugu: SHISPA PANGMA (8.027 metro), Tibetean.

EMAN ZURE IZENA!

Zurekin, giza-eskubideak gorago eramango ditugu.

803 kutx. • 48080 BILBO
465 kutx. • 20680 EIBAR
Lizarran Pilotalekua • 31200 LIZARRA
2.180 kutx. • 31080 IRUÑEA
1.109 kutx. • 20080 DONOSTIA
334 kutx. • 01080 GASTEIZ

Amnesty International




Euskal presoen aldeko enkarteladak egunero San Martin plazan

Gestorak eta Senideak taldeek deituta, gose greban diren euskal presoen aldeko enkarteladak egiten ari dira joan zen astetik egunero San Martin Plazan. Enkarteladak goiz eta arratsaldean egiten dira, 11:30etatik 12:30etara eta arratsaldean 18:30etatik 19:30etara bitartean. Manifestariek gose greban diren 20 euskal presoekin bat egin nahi dute. Mikel Zubimendi "Migelon" bergarar presoaren guse greban dago joan zen azaroaren 1etik La Sante-ko kartzelan, Parisen. Biharko enkartelada iraunkorra iragarri dute Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Euskal Presoak Euskal Herrira, Senideak eta Bergarara Plataforma taldeek. Enkartelada 11:00etatik 24:00etara egingo da eta herritarrei eta kolektiboari Konpromiso Egunean parte hartzeko deia egiten zaie.

Enkarteladak, presoek guse grebak iraun bitartean egingo dira. Senideak-eko kideen arabera, "euskal presoak ere parte aktiboak izan behar dira egun bizi dugun bake prozesuan, eta ikusten da guse greba mugagabe honen bitartez bizia ere emateko prest daudela herri honen etorkizunagatik. Borroka honen bitartez, indar

okupatzaile espainiarrak kanporatzea eta euskal preso politiko guztien kaleratzea lortu nahi da, prozesuan parte hartzeko aukera izan dezaten".

Era berean, Gestorak eta Senideak taldeek, presoek Euskal Herriratzea, hainbat arrazoiengatik gaixorik dauden preso guztien kaleratzea eta baldintzapeko askatasunaren epeetan diren kaleratzea aldarrikatzen dute. Azkenik, ezinbestekoztat jotzen dute entrega eta estradizioekin amaitzea.



Biharko Konpromiso Egunean enkartelada iraunkorra egingo da Plazan.



EHEren enkartelada

Euskal Herrian Euskaraz taldeko 10 bat lagunek enkartelada egin zuten zapatu eguerdian Bergarako Epaitegiaren aurrean. "Justizia espainola Euskal Herriatik ezabatu!" zioen pankartari eutsiz, euskaldunondako benetako justizia euskalduna aldarrikatu zuten EHEko kideek.

Konzentrazioak ordu erdi inguru iraun zuen eta epaitegiko sarrera prezintatu ondoren, "Epaile espainolak kanpora", "Euskararen ofizialtasun erreal eta osoa orain" edota "Euskaldunontzat ez dago justiziarik" zioten kartelak jarri zituzten bertan.

Peque choll

Umeendako gaien salerosketa

Aurreztu %70a berria bezalaxe erosiz

Erropa (0-16 urte) • Haurdunendako erropa • Osagarriak • Mozorroak • Jostailuak • Liburuak • Bideoak • Kasetak...

Isasi 18,

EIBAR

943 20 03 10

Salduta eta erosteko modurik onena

• EZ BOTA
• EZ GORDE
• EZ OPARITU
SALDU!

UNEDeko ikasturte berriari hasiera eman zitzaion joan zen eguakitzean

Jose Maria Urkia Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Gipuzkoako Batzordeko presidentek emandako hitzaldiak eman zion hasiera ofiziala UNED ikastetxeko ikasturte berriari, eguakitzean, Udaletxeko Pleno aretoan egindako ekitaldian. Bertan izan ziren, besteak beste, Roman Sudupe Diputatu Nagusia, Rosa Martin UNEDeko errektoreordea, Victoriano Gallastegi alkatea eta Juan Jose Alvarez Bergarako UNEDeko zuzendaria. Urkiak Errege Mintegiak Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eskutik lortutako maila bikaina gogora ekarri zuen,



Argazkian, ezkerretik eskumara, Urkia, Alvarez, Gallastegi, Sudupe eta Martin.

XVIII. mendetik teknologia eta zientzia arloetan egindako lanak goraipatuz.

Alkatearen agurraren ondoren, Juan Jose Alvarez, ikastetxeak aurrera egi-

teko, Udalak, Diputazioak eta Kutzak osatzen duten Patronatoaren laguntza eskertu zuen. Diputatu Nagusiak, aldiz, unibertsitateen alde Gipuzkoan egiten ari


den lana goraipatu zuen, "Diputazioak EHUri 1.400 milioiko dirulaguntza ematen dio, eta, Mondragon Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitateak 1.350 eta 600 milioi jasotzen dituzte, etorkizuna formakuntzan oinarritzen baita".

Aurtengo ikasturtean 1.400 ikasle inguru matrikulatu dira Bergarako ikastetxean eskaintzen diren 16 lizentziaturetan. Eguakitzeko ekitaldian, aurtun lizentziatutako 50 ikasleek beren tituluak jaso zituzten agintarien eskutik, bildutako txalo artean. Amaieran, ohi-turari jarraituz, "Gaudeamus igitur" abestu zen.

Zapatua, azaroak 27

Konpromiso eguna

San Martin plazan



Ordua	Egitaraua	Ekitaldiak
11:00	Hasierak suziriak Preso ohiekin prentsaurrekoa Bertsokak	

ENKARTELADA

Talde hauek hartuko dute parte:

11:00	Sindikatuak	
12:00	Talde politikoak	
13:00	Preso ohiak	
14:00	Kirol mundua	
15:00	Herriko kamareroak	
16:00	Dendariak	Haurrentzat marrazkiak. Trikitilariak
17:00	Udaletxeko langileak	Oihulari Clown pailazoak. Morau
18:00	Irakaskuntza. Euskara mundua	

19:30 MANIFESTAZIOA

Amaieran: dantzak eta kantak eta mariskadaren zozketa

21:00	Gazte Asanblada	
22:00	Artatse elkarteko kideak	Gure Pepi. Josune eta Edurne
23:00	Bergarako herria	
24:00	Konpromezu egun honi amaiera emateko suziriak	

Amnistiaren Aldeko Batzordea
Euskal Presoak Euskal Herrira
Senideak
Bergarara plataforma

Berrigara

389 zenbakia.
1999ko azaroaren 26a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Tere Madinabeitia,
Aintzane Irizar.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpideta: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkoroberezar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

JOSE MARI ETXANIZEK SALAMANCATIK

Topasen,
1999ko azaroaren 19an:

Kaixo Berrigarako lagunak!
Ia goizeko ordu biak direnean hasi naiz pentsatzen zuekin zer bait zintzilik dudala, eta lerro hauen bitartez, azaldu nahi dizkizuet nire ixiltasunaren arrazoiak. Urriaren azkenetan zuen galdeketa jaso nuen elkarriketa bat argitaratzeko asmoz; ez zegoela arazorik eta prest nengoela zuenari erantzuteko esan ondoren. Ordudanik, gauza batzuk aldatu dira. Orduan izan zen aldaketak orain beste dimentsio bat hartu du preso kolektiboaren aldarrikapenak gose-greba borroka dela medio. Lotsaz gorritzen naiz nire egoeraz mintza-

tzen ari garen bitartean beste lagun batzuk mugagabeko gose greban ari direla pentsatzean. Prozesu hau aurrera eramateko, bere larria jokoan ipintzen duten lagunenganako errespetuak edo ez dakit zer sentipenek "moztu" egiten dizu norberaz mintzatzea. Beraz, ideiak eta indarrak lagun hauekin bat eginez erabili beharko genituzke benetako pake bidea jorratzen.

Bestaldetik, zuen galdera-sortaren aurrean bertigoa sentitu dut, hemengo erritmoak oso bestelakoak dira. Hemen, alde batetik, ezer ez dela pasatzen iruditu arren, gertatzen direnak bizitasunez sentitzen ditugu. Dramak egunerokoak dira hemen, nola zuen galderei erantzun eguneroko hainbeste drama azaldu gabe, nola adierazi dezakegu ego-


era hauen aurrean sentitzen direnak, lagun bati arnasa itzuli nahi eta ezin denean sentitzen duzun inpotentzia, hutsunea eta amorrua; nola mintzatu egia "prostituidu" gabe?

Sentitzen dut zuen perspektibei huts egiteagatik. Eta barkamena eskatzen dizuet horrexegatik, baina ni horrela hobeto sentitzen naiz. Bergarara itzultzea ez dut gertu ikusten oraindik, herriaz pentsatzeak sortzen dituen sentsazioak oso bereziak dira, hotzikarak ematen dizkit oraintxe bertan, sadiko samarrak ez ote zaretan zalantzak ditut (Jroma hori barkatzen badidazue). Eskerrik asko denagatik eta hori... segi aurrera!

Besterik gabe, jaso ezazue besarkada bana.

Jose Mari Etxaniz

tira biraka: unai azkarate




■ atrebentzia ezpada

Gero eta debeku gehixago dago erretzailliendako, baita toki publikuetan be. Zer pentsatzen jatzu?



Fatima Lasa

Nik ez dot erretzen, eta pentsatzen dot leku publikuetan debekatu bihar leukiela. Errespetua merezi dabe erretzen ez dabenak.




Ruben Arrondo

Autobusian erretzen badozu ondokuak gaizki pasatzen dau. Nik aguantauko neuke erre barik toki horretan.



Almudena Lopez

Nik erretzen dot, eta ondo pentsatzen jat. Nik errespetauko neuke debekua.



Migel Angel Aransaez

Nik ez neuke erreko debekautako tokixetan. Ez erretzia errespetauko neuke.



Eloisa Tena

Niri traba egitten dost jentia onduan erretziak. Ondo pentsatzen jat holako tokixetan erretzia debekatzia.



Jose Luis Marzan

Gaizki. Ointxe laga dotsat erretziari, baiña nun erre bihar dau jendiak orduan? Kalian bakarrik? Beste toki batzutan be bai.

■ bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

ALTZASUTIK GORLA-ZURIRAKO BIDEA

Jose Mari Arizmen-diren bisita izan genuen eguaztenean BERRIGARA-ko erredakzioan. Jose Marik Altzazutik Gorla-Zurira bitartean doan bideko argazki batzuk ekarri zizkigun, bidearen egoera txarra salatze eta dagokion erakunde-ri (Udala edo Diputazioa) beharrezko neurriak har ditzala eskatzeko. Berak esan zigunez, jende asko ibiltzen da inguru horretan kotxearekin edo pasiatzen eta tamalgarria da bidea horren egoera okerrean egotea. Gorla-Zuritik beharera bidea ere antzera ei dago. Negua bukatuta koan oraindik bidea okerrago egongo dela eta zerbait egiteko ordua dela esan zigun Jose Marik.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Abenduaren 13a, astelehena,
Santa Luzia!
Jostunen afaria!
Deitu eta gorde tokia!
Agirrebeña
PATETXEA
Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

CAMACHO
Drogeria Usandegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

adituen esanetan

Loaren apnea sindromea

Azken datuen arabera, 30-35 urte bitarteko jendearen artean, gizonezkoen %25ek eta emakumezkoen %5ek zurrunka egiten du lo egiterakoan. 41 urtetik gorakoetan, berriz, portzentai horiek %60 eta %40koak dira. Zurrunkak arnasketaren etenaldi iragankorrekintartekatzen direnean apneaz ari gara. Apnearen sintomak, besteak beste, hauek liriateke: zurrunka egitea, egunean zehar logurea izatea, loaldi asaldataua, sarritan esnatzea, goizaldean buruko mina izatea, libidoaren jaistera edota animoaren alterazioak. Pertsona lodietan zurrunka egitea hiru aldiz ohizkoagoa da eta, alkoholak, tabakoak eta somniferoek ere eragina izaten dute zurrunka eragiteko orduan. Arnasketa-bidea ixtean zurrunka dator, eta apnea kasuetan hainbeste ixten denez, arnasketa etenaldiak izaten dira.

Apnearen sintomak edukiz gero, beharrezko probak egitea komeni da,




JULIAN IGARTUA
Otorrinolaringologoa

“Arnasketa-bidea ixten denean zurrunka dator. Apnea kasuetan hainbeste ixten denez, arnasketa etenaldiak izaten dira”

gaitz honek bihotzean eta birikietan eragina izan dezakeelako. Hain zuzen ere, bihotzekoak eta bularreko angina izatea ohizkoagoa da apnea dutenen artean. Beraz, elektroenzefalograma, elektrokardiograma eta oxigenoaren saturazioa neurtzeko probak egitea gomendatzen da. Ordu bakoitzeko 10 segundu baino gehiagoko arnasketa etenaldiak izanez gero, apnearen sintoma larria dela pentsa dezakegu. Tratamenduari dagokionez, alde bategatik, dieta egitea, taba-

koa eta alkohola alde batera uztea, aitari arinak egitea, lo egiteko ordutegi erregularra eramatea, eta, ahal den neurrian, estresa ezabatzea ondo etorriko zaigu. Bestalde, badira apneari aurre egiteko maskarillak, lo egiteko jartzen direnak. Dena dela, besterik ezean, zirujiaren irtenbidea ere badago, anestesia lokalaren bitartez, ahosabai biguna eta gingila kentzeko aukera dago eta.<



41 urtetik gorako gizonezkoen %60ak zurrunka egiten du lo egiterakoan.

bergarako gordailutik

SANTAMAINAKO ELIZA EGITEN

Imanol Sorondo

Badirudi Santamainako elizaren obrak 1542. urtean hasi zirela eta 1560.ean bukatu samartuta zeudela. Agian, horregatik esan izan da Bergaran Santamainako eliza oso azkar altxatu eta egin zutela, eliza asko baino lehenago eta San Pedroko eliza baino azkarrago. Ez da dena horrela; amaitu samar zutela, bukatzeko 4 urte falta zitzaizela, dirurik gabe geratu ziren, eta amaitu esaten dena 1672.ean amaitu zuten.

Horrelakoetan erantzukizunak besteren lepora jaurtitzen dira eta, beste aldetik, asko aztertzen eta jakin gabeko xehetasun ugari azaltzen dira. Hona hemen ezagututako data batzuk: 1560.ean obra ez da bukatu, eta oholez estali dute; haizea eta eurria daudenean, ura sartzen da eta batzuk elizatik atera egiten dira. Arduradun laikoa den Oñatiko Kontearekin auzitan daude eta 6.000 dukat eman behar dituela erabakiko dute. Beste irtenbide bat proposatu dute lehenagotik: 30 urtetan hamarrenetatik eta primizietatik 200 dukat jasotzea obrak ordaintzeko. Gotzaitegiaren baimen osoa jaso baino lehenagotik hasi omen zituztela obrak esaten dute. Gainera, orain galerazita omen dago ibai ertzean elizak altxatzea uholdeetan sortzen diren arriskuengatik. Sagrarioa egoera txarrean dagoela, eta zilarrezko gurutzea eta kalizak sakristauaren edo seroraren etxeetara eraman behar izaten dituztela.

Hori bai, eliza berria handia eta ederra dela diote denek; 500 pertsona eserita sartu daitezkeela; 200 hilobi eta 400 ere, hartzen dituela; Santamainan 200 familia daudela eta askoz ere jende gehiagorentzako egiten ari direla eta tokia dagoela. Nola litekeen? Eliza arrunta baino handiagoa eta ederragoa, “katedrala” egiten ari direla; askotan entzuten den hitza, eta Santo Domingoko, Gotzaitegiaren hiri nagusiko “katedralaren” modukoa.<



Bazkari jendetsua Mariaren Lagundian

Bazkari jendetsu batek eman zien amaiera joan zen zapatuan Mariaren Lagundia Ikastetxearen 200. urteurreneko ospakizunei. Ikastetxean bertan izan zen bazkaria, eta bertan elkartu ziren **ikasle ohi, irakasle eta gurasoek, 500 lagun inguru** guztira, aintzinako kontuak gogora ekartzeko aukera paregabea izan zuten. Hala ere, **elurra** ari zuela eta, kanpotik etorritako jendeak nahi baino azkarrago alde egin behar izan zuten.

Jardun gaztetxoekin

Jardun Elkarteak asteburuero antolatzen ditu hainbat ekintza gaztetxoendako: **jolasak, irteerak, bideo emaldiak...** Joan zen asteburuan, esaterako, futbolen txapelketa eta beste hainbat jolas izan zituzten. Datorren asteburueran zenbait filme ikusteko aukera izango dute; abenduko zubian, osterara, hiruzpalau eguneko irteera antolatu dute Muxikako aterpetxe batera. Jardunek 11-14 urte bitarteko gaztetxoekin zuzendutako ekintzak antolatzen ditu asteburuero, eta ekainera bitarteko izen-ematea (3.400 pezeta) Jardunen bertan egin daiteke.



Koadrilen afaria Osintxun



Aspalditik datorren obitura da Osintxun, **Domu Santu eguna** pasatu eta hirugarren astelehenean **aza, buzkantza eta agaztaina afaria** egitea, koadrilek antolatuta. Astelehenean ospatu zen egun hau, eta Osintxuko hainbat koadrila elkartu ziren, bai Aitz Pe elkartearen, eta baita jatetxe batzuetan ere. Arratsaldean, gaztain erreak eta sagardoa egon ziren nahi zuten guztientzat.

Sariak eta diapositibak

Mendi Astea zela eta, marrazki lehiaketa antolatu zuen **Pol-Pol Mendizale Elkarteak** gaztetxoekin. Irabazleak, Mariaren Lagundiako **Iñigo Aristegi, Rita Orbe eta Iker Lizarralde** izan ziren, eta San Martin Eskolako **Janire Bernardo, Cristina Blanco, Iban eta Ander**. Eguenean jaso zituzten irabazleek sariak **Ion Lazkano eta Felix Iñurrategi** mendizaleen eskutik (argazkian). Ondoren, **Jose Mari Elosegik** diapositiba emanaldi ikusgarria eskaini zuen **Samarkhandako ibilaldian** ateratako argazkiekin.



IRRATI EMANALDIAK

Eguakitzetan hiru emanaldi

12:00etan, 13:15etan eta 15:15etan.



*albistek
ipuinak
elkarrizketak
urtebetetzeak
inkestak
bertsoak
kirolak
errezetak
asmakizuna
horoskopoa*

**SAN MARTIN IRRATIA
FM 108.0**



**Entzun, entzun
gure irratsaioak!**



SAN MARTIN AGIRRE

herri ikastetxea

B. Laskurain 25
Tf. 943 76 21 47
182 posta kutxa

20570 BERGARA



Jena AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

Arrasate Pressen eta Berrigararen, 2. eskuko autoen aldizkaria.

10. zenbakia. 1999ko azaroa.

Merkataritza teknikaria: Idoia Pozo.

Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trubuelo. Tirada: 11.600 ale.

Berrigara

Arrasate
P R E S S

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tel.: 943 76 47 74				
Peugeot 205 Rallye	SS-AF	1989	AH/IK	Kontsultatu
Hyundai Coupe Turbo 1.5	SS-AT	1994	AH/LD/KE/IZ	Negoziatzeko
Ford Escort 1.6 16v	SS-AS	1994	IK,Airbaga,A	Kontsultatu
Opel Corsa 1.4	SS-AL	1992	E,S,3 ate	Prestatzen
Opel Astra 1.6 i 16v	M-XF	1999	AG,ABS,Airbaga,KE,IZ,LD	Kontsultatu
Opel Vectra Caravan 16v	M-BL	1999	AG,ABS,Airbaga,KE,IZ,LD	Kontsultatu

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrokoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera



Aukerako Autoen I. Erakusketa

Azaroaren 6an eta 7an, Aukerako Autoen I. Erakusketa egin zen Arrasateko Arruenako parkean. Debagoieneko bederatzikontze-zionariok antolatu zuten erakusketa. Opel, Citroen, Audi eta Peugeot modeloeako autoak ekarri zituzten. Era askoko prezioak ikusi ziren, modelo, egoera eta matrikularen arabera: 300.000 pta.tik 7 milioi bitartean, hain zuzen ere.

Beste bailara batzuetan lehenago ere egin izan dira honelako erakusketak, baina gurean, lehenengoa zen. Helburua "jendeak auto hauen gainean duen irudi okerra aldatzea" zen, antolatzaileek adierazi zigutenez.

120 auto batu zituzten eta larunbatean hamar erosle agertu ziren Arruenan.

Jendearen iritziz, "honelako ekimenek erraztasunak ematen dizkiote autoa erosteko asmotan dabilenari, etxe askoko autoak leku bakarrean ikusteko aukera eskaintzen duelako".

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekabioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tf. 943 76 33 00

ALMACENES LASCAR S.L.

Olio aldaketa
Erubera aldaketa
Auto garbiketa:
kanpotik eta barrutik
Errebisio orokorra:
frenoak, bujiak, korreak...

Amillaga 32, BERGARA.
943 76 10 38 / 76 19 11. Faxa 943 76 59 60.

Larringan

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA

Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA



DENA AUTO

Tel.: 943 71 23 91
Faxa: 943 71 23 89

DESA/CRISTAL

IBILGAILUEN KRISTALDEGIA Tailer berria BERGARAN

- /// Auto, furgoi eta kamioientzako kristalen muntatzea.
- /// Solar-check laminaren instalatzaile baimenduna.



DESACRISTAL

Santalaitz 6, 5. pabilioia
 Tel.: 943 76 36 09.
 Faxe: 943 76 73 45



35.000
IRAKURLE

Berrigara Arrasate

Dena **AUTO**

2. ESKUKO
AUTOMOBILEN GIDA

Kontratazioa

Idoia Pozo

ARRASATE PRESS:
 Otalora kalea 31
 20500 Arrasate. Gipuzkoa
BERRIGARA:
 Errotalde jauregia z/g
 20570 Bergara. Gipuzkoa

Telefonoak:
 943 76 03 97
 943 71 23 91
Faxak:
 943 76 29 77
 943 71 23 89

Debagoieneko auto saltzaileok! Aukeran dituzuen erabilitako autoen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko** ia etxe guztietara helduko da. **35.000 irakurle** inguruk izango dute Dena Autoren berri.

1999ko eskaintza bereziak hauexek dira:
LERROA: 1.300 PTA
PUBLIZITATE MODULUA: 3.000 PTA

Sei egin eta bost ordaindu:
 Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu. Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizugu.



Azokaren hasieran eguraldiak asko lagundu ez badu ere, bergararrak ez dira etxean geratu eta hurbildu dira San Martin Plazara.

Irakurketarako gonbitea

Liburudendak, argitaletxeak, banatzaileak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bergarako Udala. Guztiak liburuak saltzen ari dira egun hotz hauetan San Martin plazan, azaroaren 28ra bitartean zabalik dagoen Liburu Azokan.

Ehundaka liburu erosteko aukera dago San Martin plazan hurrengo domekara arte

Liburu Azokak elurraren bisita izan badu ere, aurrera darrai, eta gaur bere bigarren asteburuan sartuko da. Era guztietako liburuak daude liburudenda, banatzaile, argitaletxe, Aldundi eta Udalaren etxoletan, euskaraz zein gaztelaniaz: nobelak, poesia-liburuak, gai orokorrekoak, liburu espezializatuak, hiztegiak... Baina musika-CD eta zintak, eta bideoak ez dira falta.

Postu bakoitzak du bere berezitasuna. Horrela, Foru Aldundiarenak berak argitaratutakoak ditu. Gautegiz, Artia eta Iñaki eta Edurne liburudendek elkarrekin jarri dutenean eta Gorman liburudendarenean aukerako liburuak daude salgai, hau da, edizio berezi eta

zaharrak eta titulu klasikoak. Zabalitzen, Elkarlanean eta Bergarako Etxepareren etxolan nobedadeak eta euskal musika azpimarratu behar dira. Urretxindorrek, berriz, haur-literatura du nagusi, nobedadeekin batera. Bilintxek ere nobedadeak saltzen ditu nagusiki. Postu gehienetan %10eko deskontua egiten da eta beste eskaintza berezi bat ere badago: Elkarlanean argitaletxearen postuan liburuak erosten duen Udal liburutegiko bazkideak 50.000 pezeta-ko liburu-sorta jasotzeko aukera izango du igandean egingo den zozketan.

Udalak, bestalde, Mankomunitateko kirol zerbitzuek elkarrekin ateratako liburu eta bideoez gain, berak argitara-

tutakoak edo lagundutakoak ditu salgai: beste 23. Hauetatik, espioitza lantzen duen "La Bascongada y el Ministerio de Marina", "Historia de una estufa", "Txondorrek, karobiak eta elurzuloak" eta "Euskal gazteen irakurzaletasuna" liburuak azpimarratu behar dira, baita 9 alez osatutako Bergarako historiaren monografiaren bilduma ere. San Pedro elizako Santo Kristo Hilzorikoaren irudiaren 300 urteak ospatzeko 1926an jasotako irudiak biltzen dituen bideoa ere ezin aipatu barik laga.

IRAKURZALETASUNARI BULTZADA

Azokaren antolatzaileak Euskadiko Liburu Azokan Batzordea, Euskadiko

Udalak, bere
produzioa
saltzeko, postu
bat jarri
du azokan



Liburu-azoketan salduenak

EUSKAL LITERATURA

Gerezi denbora
Bai..., baina ez
Nerabearen biluzia

Iñaxio Mujika
Laura Mintegi
Xabier Mendiguren

Alberdania
Elkarlanean
Elkarlanean

EUSKAL GAIAK

Garzón. La otra cara
Las torres de Sancho
La Navarra marítima

Pepe Rei
Toti Martínez de Lezea
T. Urzainqui/J.M. Olaizola

Txalaparta
Tarttalo
Pamiela

ERDAL NOBELA

Melocotones helados
El último judío
Lo es

Espido Freire
Noah Gordon
Frank McCourt

Planeta
Ediciones B
Maeva

HIZTEGIGINTZA

Euskal Hiztegi Entziklopedikoa
Nire lehen hiztegia

Harluxet
Harluxet

HAURRENTZAT

Baserrian (bideoa)
Ipuinen Mari saila

Takolo, Pirritx eta Porrotx

Matxinsalto
Elkarlanean

MUSIKA

Iparragirre bueltan etxera
Bizkaiko koplak zaharrak

Oskorri/Urretxuko herria
Tapia, Leturia eta Amuriza

Elkarlanean
Elkarlanean

Editoreen Elkarteak eta Gipuzkoa zein Bizkaiko Liburu Saltzaileen Elkarteak dira. Euskadiko Liburu Ganbara ere laguntzailea da eta, oraingoan, baita Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzua ere.

Azoka ibiltaria da. Urte hasieran, Euskal Herria ibiliko duen zirkuitu bat antolatzen dute. Maiatzetik abendura arte, ahalik eta eskualde gehien ukitzen saiatzen dira. Toki finkoak dira batzuk; beste batzuk, Bergara esaterako, alternatiboak. Hogeita bat azoka izaten dira, eta gehienetan postu berak egoten dira.

Azoka hauek bi helburu dituzte. Batetik, urtean behin herrietako jendearengana hurbildu eta liburuekin lotutako aisialdia eskaini. Bestetik, liburua

jendea dagoen tokira eramanez eta merkatuan zer dagoen erakutsiz, irakurzaletasuna sortu eta bultzatu.

Helburu antzekoak izan ziren Bergaran aurretik antolatutako beste bi azoketan. Lehena, orain dela 15 urte egin zen. Bigarrena, 1997ko abenduan egin zen, bi egunez, Jardunek eta Akula AEK euskaltegiak antolatuta.

AZOKAZ AZOKA

Ettxepare da egun hauetako azokan dagoen liburudenda bergarar bakarra. Elkarlanean eta Zabaltzen ditu kide etxolan eta Pako eta Andoni arduradunak. Bi lagun hauek 20 azokatarako joaten dira. Hamahiru urte daramatza Pakok eta zortzi Andonik, eta gustora ari dira, kaleran lan egiten dutenez, asko ikasten ari direlako.

Azoketan pasatutako denboran gauza asko ikusi dute. Antzeman duten euskararen gorakada azpimarratu nahi dute, gero eta gehiago entzuten delako jendea euskaraz hitz egiten, eta hainbeste igo den euskarazko produkzioak erosleak badituelako. Euskararekin lotutako anekdota bat gogoratu eta azaldu nahi dute, Barakaldon gertatutakoa: herri honetara joan ziren lehen aldian eta euskal musika jarri zuten bere etxolara jendea erakartzeko. Erakarri ere erakarri zuten, izan ere, atzerriko musika zelakoan bikote bat joan zitzaizen eta esan zieten atzerriko musika saltzeko asmotan baziren, Barakaldon jai zutela.

Bergaran ere jaso dute bere anekdota-bildumarako aipamenik: elurra. Hotza ari dira pasatzen, baina jendea ez da etxean gelditu, eta pozik daude bergararren erantzunarekin.


Pako eta Andoniren hurrengo azokak Durangoko Euskal Liburu eta Diska Azoka izango da.<

Egun hauetan Bergaran dugun Liburu Azoka ibiltaria da. Maiatzetik abendura bitartean 20 bat tokitan ibiltzen da urtero Euskal Herrian zehar



ARRASATE
KIROLAK

Gore-tex jantzietan espezialistak



TERNUA



Peak Performance

Schöffel

POLAR mountain



Bergarako hirugarren mailako futbol taldeak Arenas taldearen aurka jokatu du domekan, 15:30etan Agorrosin futbol zelaian. Biainen mutilek bigarren aldiz jarraian etxean jokatu dute, zapatuan Santurtzi taldea 3 eta Oeko emaitzarekin menderatu ostean.

Bost partidu jarraian galdu ondoren, azken hirurretan garaipena eskuratu dute mahoneroek. Zapatuan, gainera, partidu ona jokatu zuten, eta Agorrosinera joandako zaletuek etxekoan jokoarekin gozatu egin zuten, hotza eta elurra jasan behar izan arren. Lehen zatian, bi goleko abantaila lortu zuen Bergarak Oxel Apraizek eta Gorka Dueñasek penalti jaurtiketa baten bitartez egindako golei esker. Bigarren zatian ere etxeoak izan ziren nagusi eta markagailuan tarte handiagoa lortzeko gol aukerak izan zituzten. Partidua amaitzeko ordu laurden falta zela, Gorka Dueñasek partiduko golik onena egin zuen area barruan defentsa bat atzean utzi eta atezaina gainditu ondoren.

Bergarak Arenasen aurka jokatu du domekan

Bizkaitarrak sailkapeneko bigarren tokian daude



Argazkian, Elgoibar taldeari nagusitu zitzaion hasierako hamaikakoa.

PARTIDU BAKARRA GALDU

Bergara sasoi onean badago, Arenas taldea oraindik hobeto dago, partidu bakarra galdu baitu Jose Antonio Goikoetxeak zuzendutako taldeak. Bizkaitarrak sailkapeneko bigarren tokian

daude, 27 punturekin, Reala liderarrarengandik hiru puntura. Bergararrak 15. tokian dira, 16 punturekin, eta domekan beste garaipen bat lortzen saiatuko dira. Biain entrenatzailearen arabera, "azken garaipenek la-

saitasuna eman digute, eta domekan ere irabazteko asmoz aterako gara. Aspaldi honetan primeran dabil. Arenas baina guri ere gazak hobeto irten zaizkigu azken partiduetan, eta partidu borrokatua izango da".



Dominguezek eta Jauregik jokatu zuten kadeteen finala martitzenean.

Soraluzetarrak nagusi Debako Baque finaletan

Martitzenean Baque txapelketaren eskualdeko finalak jokatu ziren Bergaran, Deba aldeko jubenil eta kadete mailako pilotariak joan zen urriaren 12tik lehian izan ondoren. Orain arte Aretxabaletan aritu dira kadeteen arteko finalean Erlel Txurruka plazentziarrak 22 eta 7ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Aitor Etxaniz

eibartarrari. Bestalde, jubenilen arteko finalean ere Soraluzeko ordezkaria izan genuen garaile, Inaki Jauregik (argazkian eskumaldean) Beñat Dominguez arrasaterra 22 eta 6ko emaitzarekin menperatu baitzuen. Lau pilotariak Irunen jokatu den azken faserako txartela lortu dute finalera heldu izanagatik.

Piszinak hiru egunez itxita egon dira galdararen aberia bategatik

Galdararekin izandako aberia konpondu ondoren, eguaztenean berriz ere zabaldu zituzten igerilekuak. Kirol Zerbitzuak esandokoren arabera, honakoa aurreten igerilekuak itxi behar izan dituzten bigarren aldia izan da, urriaren 17an eta 18an ere itxita egon baitziren dosifikagailua hondatu ondoren. Yosune Linazisoro Kirol Zerbitzuko arduradunaren arabera, "argi dago instalakuntzak zaharkituta geratu direla. Gaur egun, ez dugu Osakidetzaren araudia betetzen: piszina txikiak eta handiak depurazio independentea izan behar lukete, kanpoko eta barruko piszinek bakoitzak bere aldagelak izan behar lituzke, eta barruko instalakuntzaren sabaia ere ez dago egoera onenean". Nere Amaia



Igerilekuetako ura 25,5 °Cko temperaturan zegoen eguaztenean.

Zabala kirol zinegotziaren hitzetan, "piszina berritze-ko asmotan gara, baina jasoko genituzkeen dirulaguntzen menpe gaude".

ZERBITZU DEFIZITARIOA

Agorrosingo igerilekuek 69 milioi pezetako aurrekontua

izan zuten iaz eta bazkideen kuoten bitartez autofinantziazioa %36,8koa izan zen. Kontuan izan behar da bazkide kopuruak behera egin duela azken urteotan: 1994an 4.249 ziren, eta aurtengo urrian, berriz, 3.823 lagun.

Kirol laguntzen eskariak

Kirol talde eta kirol ekintzen antolatzaileei gogorarazten zaie martitzenean, hilak 30, bukatzen dela aurtengo txostenak eta datorren urtera begira eskaerak egiteko epea. Argibide gehiago Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

Aholkularitza fisikoa

Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, abenduaren 15ean eta 22an, 18:30etatik 20:00etara igerilekuko gimnasioan oinarrizko prestakuntza fisikoko ikastaroa eman go da. Izen-ematea Kirol Zerbitzuan abenduaren 13a baino lehen.

Mendi eta eskiko federatuak

Pol-Pol Mendizale Taldearen bulegoan 2000. urteko mendiko zein eskiko federatu txartelak egin daitezke. Interesatuek Pol-Poleko bulegoan bertan edo 943 76 48 51 telefonaan bertan jaso dezakete argibide gehiago.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Amaikak Bat

Lehen mailako kadetea
Zapatua. 15:30. Ipintza

Bergara-Urola

Nesken taldea
Zapatua. 17:15. Ipintza

Bergara-S. Tomas Lizeoa

Ohorezko kadetea
Domeka. 10:30. Ipintza

Bergara-Arenas

Hirugarren maila
Domeka. 15:30. Agorrosin

ARETO FUTBOLA

Bergara-Ibarra

Jubenil mutilak
Zapatua. 12:30. Kiroldegia

ESKUBALOIA

Bergara-Beasain

Kadete mutilak
Zapatua. 16:00. Kiroldegia

Bergara-Leizaran

Senior mutilak
Zapatua. 17:15. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Alde Zaharra

Senior neska
Zapatua. 16:00.

Mariaren Lagundia

Bergara-Paules Pryca

Senior mutilak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Bergara-Celtic Bidasoa

Kadete mutilak
Domeka. 10:30. Kiroldegia

PILOTA

KLUBEN ARTEKO
TXAPELKETA

Bergara-Azkoitia

Jubenilak (banaka)

Bergara-Arrasateko

Lehen mailako seniorrak
Gaur, eguakitzan, 19:30etan
Udal Pilotalekuan

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Amilotx-Urruxurtu
10:00: Xurruapak-Guadalest

Xurruapak
Torrekua

ZAPATUAN KANPOAN

11:00: Torrekua-Uve Bikoitza
12:00: Buya-Soropotoak

Buya
Uve Bikoitza

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Txipiron-Aterpe
10:30: Pagomendi-Azpeitxi Jatetxea
11:30: Irubide Jatetxea-Moskis
12:30: Bildurbarek Opel Lam-Patatus
16:00: Errotagain-Artusamak
17:00: Mo(ko)lotov-Sirimiri Eri
18:00: Ortzí Angiozar-Ion Autoak
19:00: Patxaran Team-Amozkibar
20:00: Pinturas Bergara-La Juve

Pagomendi
Irubide
Bildurbarek
Moskis
Mo(ko)lotov
Ortzí
Patxaran T.
P. Bergara
Amozkibar

GORA ETA BEHERA



Urrezko berdinketak

Komando Piperrak taldeak lehen puntua eskuratu zuen Xurruapen kontra. A Ze Flaxa, Mongatxurak eta Errotagain liderren aurka berdindu zuten Vacalouras, Patxaram Team eta Guadalest taldeak ere nabarmentzekoak dira.



Goleadak jasotzen dituztenak

Bayerrek, Torrekua eta Etengabek txarto jarraitzen dute eta azken jardunaldian ere goleadak jasan zituzten. Noizko erreakzioa?

ARGI!

Antolatzaileen oharrak

Aktak, izen-deiturekin osatu behar dira. Ez da inolako ezi-zenik edo bestelakorik ipini behar. Abenduaren 11 eta 12ko asteburuan lehen itzulia bukatu egingo da. Beraz, inork ezingo du partidurik atzeratu.

EMAITZAK

A MULTZOA

Etengabe-Irubide jatetxea	0-9
Ari Ari-Sirimiri Eri	1-5
Azpeitxi jatetxea-Mo (ko) lotovov	4-3

B MULTZOA

Patatus-Bayer	3-0
Agirrebeña jatetxe-Tom Cat	3-1
Amozkibar- Bildurbarek Opel Lam	4-4
Patxaram Team-Mongatxurak	2-2

C MULTZOA

Ion Autoak-Shaktale	2-4
Uve Bikoitza-Buya	4-2
Vacalouras- A Ze Flaxa Etxagi	5-5
Soropotoak-Torrekua	9-1
Agriñazpi-Ortzí	0-9

D MULTZOA

Artusamak-FAC	3-5
Bar Canalejas-Txipiron	4-3
Guadalest-Errotagain	2-2
Aterpe-Ufala	3-3
Komando Piperrak-Xurruapak	2-2

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	24	8
2. Azpeitxi jatetxea	21	8
3. Irubide jatetxea	16	8
4. Sirimiri Eri	16	8
5. Ari Ari	7	8
6. Mo(ko)lotov	7	8
7. Pinturas Bergara	6	8
8. La Juve	6	8
9. Moskis	6	7
10. Etengabe	6	9

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	22	8
2. Ortzí	18	8
3. Uve Bikoitza	16	8
4. Shaktale	13	8
5. Vacalouras	11	8
6. Agriñazpi	9	8
7. Buya	7	7
8. Soropotoak	6	7
9. Ion Autoak	6	8
10. Torrekua	3	8

B multzoa

	P	J
1. Mongatxurak	18	8
2. Bayer	17	8
3. Bildurbarek Opel Lam	13	8
4. Urruxurtu	13	7
5. Amozkibar	13	7
6. Tom Cat Argandolas	9	8
7. Agirrebeña Jatetxea	9	8
8. Patxaran Team	8	7
9. Amilotx	6	7
10. Patatus	0	8


D multzoa

	P	J
1. Errotagain	19	7
2. Bar Canalejas	18	8
3. Artusamak	16	7
4. FAC	14	8
5. Guadalest	13	7
6. Xurruapak	12	7
7. Txipiron	7	8
8. Aterpe	4	8
9. Ufala	4	8
10. Komando Piperrak	1	7

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia




San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19

■ mahoneroak



JOKIN MENDIARTZ
Bergarako jokalaria

Beharbada aurtengo denboraldiko partidurik onena jokatu genuen zapatuan Santurtziren aurka. Hasi-erata gure taldeak jarrera ezin hobea azaldu zuen, eta bizkaitarrak sailkapeneko bosgarren tokian egon arren, inolako beldurrik gabe jokatu genuen. Beraiek gauza gutxi egin ahal izan zuten. Lehen zatian bi goleko diferentzia gure alde izatea lortu ondoren, Santurtzik partidua galdutzat eman zuela uste dute. Egiten zuten eguraldiarekin erabat hoztu egingo zirela esango nuke, eta gu, beraz, ondo moldatu ginen elurpean jokatzeko.

Bigarren zatian gogor gehiago lortzeko aukera dezente galdu genituen, eta ez zen harritzekoa izango partidua abantaila handiagoz amaitu izan balitz. Dema den, pozik gaude jarraian lortutako hirugarren garapenarekin, eta domekan, martxa oneri jarraipena ematen ahaleginduko gara bigarren tokian dagoen Arenas taldearen aurka.

Otsein Saria

Santurtziren aurkako partiduan etxekoan aldetik honako hauek nabarmendu ditugu:

Oxel Apraiz 3 puntu
Gorka Dueñas 2 puntu
Jokin Mendiartz ... 1 puntu

Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

■ kronika: bigarren mailako jubenil futbol taldea

Azken orduko garaipena

BERGARA 3

ANTZUOLA 2

IPINTZA. 1999-X-21. 11:30.

Bergara: Jabier Garcia, Iñaki Corral, Julen Aranburu, Josu Gonzalez (Alex Abajo, 48. min.), Zigor Aiukar, Aritz Agirre, Unai Bilbo, Gorka Martinez (Ander Muruamendaraz, 75. min.), Asier Bolinaga (Ander Elkoro-bereziabar, 55. min.), Migel Sanchez (Aitor Blanco, 54. min.) eta Eneko Juaristi.

Golak: 1-1. Alex Abajo. 2-2. Eneko Juaristi. 3-2. Julen Aranburu.



Jesus Aranburu eta Pedro Jausoro entrenatzaileak bere jokalariekin partidu atarian.

Domeka goizean Ipintzan bildutako futbol zale-tuek Antzuola eta Bergara-

ren arteko futbol partidu borrokatua ikusi ahal izan zuten. Jesus Aranburuk gertatzen duen taldea bi aldiz atzetik joan zen markagailuan, baina azkenean, partidua amaitzeko bost minutu falta zirela, garaipena eskuratu zuen. Bergarako Biga-

ren mailako jubenil taldeko jokalaria gehienak kadete mailan aritu ziren aurreko denboraldian (Ohorezko mailara igoera lortuz) eta, beraz, aurtengoa jubenil mailako lehen urtea dute. Antzuolak, aldiz, urtebete gehiagoko jokalariai dute.

Hala ere, Bergara ondo moldatu da kategoria berri-
ra, eta orain arte jokatutako hamar partiduetatik sei irabazi ditu, bi berdindu eta beste biak galdu egin dituzte: Ilintxa liderraren aurka Legazpin eta Eibartarrak taldearen kontra, hain zuzen. Bergararrak sailkapene-
ko hirugarren tokian dira, Ilintxa eta Arrasateren atzetik.

Joan zen domekan bergararrek ez zuten denboraldiko partidurik onena jokatuta, eta, nahiz eta zelai erdian nagusi izan, antzuolarrak 0 eta 1eko abantailarekin joan ziren aldageletara atsedendian. Zelairatu bezain laister, Alex Abajok berdinketaren gola egin zuen, eta handik gutxira antzuolarrak berriz aurreratu ziren. Bergarak aukera mor-
do bat izan zuen, baina azken metroetan ez zuen asmatzen. Azkenean, eta Eneko Juaristiren golarekin, partidua berdinketarekin amaituko zela zirudienean, garaipenaren gola iritsi zen, Julen Aranburuk antzuolaren atezainaren huts bat aprobetxatuz egin zuena, hain zuzen ere.

JESUS GARCIA / Kulturista

"Ez nuen desentonatu Espainiako txapelketan"

Jesus Garciak (31 urte) Madrilen jokatutako Espainiako Kulturismo Txapelketan parte hartu du. Bere kategorian zazpigarren tokian sailkatu zen. Garciak 13 urte daramatza kulturismoa egiten, eta 97an Euskadiko txapeladuna izan genuen.

G. Zein helbururekin joan zinen Madrilera?

E. Aurrekoan bi kategoria azpitik (65 kilorekin) hartu nuen parte, eta aurten, berriz, 70-75 kg. bitartekoan, 74 kilorekin hain zuzen. Gauzak ez zitzaizkidan nahi bezala atera, behar bada, hiru kilo gehiago kentzea beharrezkoa nuelako. Oso maila handia zegoen; hala ere, ez

nuen desentonatu eta gutxigatik ez nintzen finalerako sailkatu, lehen seiak sartzen baitziren azken fasean.

G. Zela eman zenuen salto kategoria handiago batera?

E. Masa muskularra handituz, 91 kilo pisatzera iritsi nintzen, eta hortik aurrera, dieta eginez, pisua jaisteari ekin nion. Konpetitu dudana pisuan oraindik ere hobetu beharra daukat.

G. Zein prestaketa egin duzu?

E. Azken hiru hilabeteetan, dieta jarraituz, egunero hiru aldiz entrenatu dut, pesak eta arlo aerobikoa landuz.

G. Orain, zer?

E. Datorren urtean ere Espainiako Txapelketara joateko asmoa daukat, eta aurretik beste pare bat txapelketa egingo ditut.

G. Zein da adinik egokiena kulturismoan aritzeko?

E. Ez dakit, Madril-
en 20 urteko gazteak eta 40tik gorakoak ere bazeuden eta.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Antzuola. 943 76 65 65.

Zubieta. 943 76 07 60.

S. Lorentzo. 943 76 38 87.

ERRENTAN EMATEKO

Laredoko hondartzan pisua errentan, abenduko zubian. 619 80 91 69.

ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan. 943 76 03 31.

Bikote batek Bergaran edo Arrasaten pisua hartuko luke errentan. 619 15 44 06 (Fran).

Irakasle batek pisua alokairuan hartuko luke. 943 76 22 77.

ETXE KONPARTITUAK

Jacan, ski denboraldian, pisua konpartitze-

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaearak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaearak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ko jendea behar da. 617 85 71 19.

Etxea konpartituko nuke. 619 39 34 01 (Txomin).

Pertsona behar da pisua osatzeko Bergaran. 943 74 44 44.

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 00 93.

Garajea salgai Ibarge-

rain. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza salgai. 943 76 33 88.

Antzuolan, Lizarragan, salgai edo alokairuan. 670 49 87 40.

Koldo Eleizalde. Deitu 943 76 36 34 telefonora.

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 28 24/ 39 49 78.

Garajea salgai Bolun. 943 76 19 69.

ERRENTAN EMATEKO

Burdiñatan, alokairuan edo salgai. 943 76 02 34.

Soto bat alokairuan edo salgai Matxiategin. 166 m². 943 76 28 09.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokala (50-70 m²) errentan hartuko nuke Antzuolan edo Bergaran. 943 76 62 63.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Uberan, biltegitirako aproposa. 80 m². 943 76 30 84.

4. LANA

ESKAITZAK

Administratibo edo idazkari lanak. Esperientzia. 943 76 35 95.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Urmeak zaindu arratsaldean. 943 76 34 48 (Mayra)

Etxe lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana)

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24

Emakume bat goizez lan egiteko prest. 607 326 706.

Etxe lanak edota plantxa egingo nuke ordutara. 943 76 54 82.

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. 943 76 54 20 (Neira)

Astebukaeran lan egingo nuke. 943 76 44 04.

23 urteko mutila lanerako gertu informatika arloan. 619 15 44 06 (Fran)

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis)

Galdaragintzarako LAGUNTZAILEA
behar dugu
943 76 14 23


GURIA Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

BIZKOTIHOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono. 761051
R.S.I. 209374 - 55
BERGARA
Pozogintzan aintzindari.

Kabia taberna-erretegia
SALGAI
Prezio ona
943 76 23 08

Maxim's
☎ 943 76 20 61

POL-POL Taberna
☎ 943 76 07 78



Haurrak zaindu edo dendarri lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.

ESKAERAK

Neska euskalduna behar da arratsalde zumeak zaintzeko. 943 76 24 33.

Etxeke lanak egiteko neska, 9:00etatik 14:00etara. 943 76 01 80.

Esperientziadun neska andre edadetua zaintzeko. 943 76 07 24 (gauetz).

Etxeke lanak egiteko emakumea behar da. 943 76 31 11.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Majisteritzan diplomatuak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Kitarra. 943 76 45 73.

Ingeleseko majisteritzan diplomatuak klaseak. 943 76 21 09.

Solfeko eta piano klaseak. 943 76 72 69.

Ingeles filologian lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

ESKAERAK

Enpresaritzan mailako matematikako klaseak hartuko nituzke. Deitu 943 76 33 29 telefonora.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Renault 5 (SS-P). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Transit furgoneta (SS-AP) egoera onean. Deitu 943 76 02 55 telefonora (Karmelo).

Suzuki S1413 kotxea, 4 errobera eta lona opari. 943 78 14 72.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Suzuki GS 500 E motorra. 943 76 31 52.

Seat Ibiza (SS-AB) kotxea. 943 76 00 69.

Suzuki DR 650 motorra. 943 76 52 08 (Sonia).

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

Fiat Ducato furgoneta. 3 urte, 1.600 kiloko kapazitatea.

Deitu 943 76 09 12 telefonora.

7. ANIMALIAK

SALDU

Urtebeteko artzain txakurra. 943 85 00 21.

BESTELAKOAK

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea. 943 76 49 09.

8. DENETARIK

SALDU

Petrolioeko estufa berria. 943 76 59 68.

Butanozko sukaldea salgai. 943 76 46 14.

Ekonomika salgai, iturriko zein berogailuko ura berotzeko aproposa. 943 76 62 36.

Apalak salgai. 943 76 25 79 (gauetz).

Olivetti ET-510 II idazmakina elektronikoa. Berri-berria, 10.000 PTA. 943 76 55 63.

Play stationa: 3 joku, mandoa. 943 76 52 16.

Chaman piragua, txaleko berezia, pala eta kotxeo barrak. 50.000. 943 77 01 74 (Felix).

Airwalk snowboarda eta fijazioak. 943 76 45 07.

Bizikleta-rodillo finkoa. 943 75 23 79 (Ana).

Kerosenozko estufa ia berria. 943 76 01 99.

EROSI

16 mm.ko zine proiektorea erosiko nuke. 943 76 58 37.

EMAN

Umeendako bi aulki eta kotxerako beste aulki bat opari. 943 78 70 07.

HARTU

Sukalderako armaria behar dugu. 943 76 11 98.

GALDU

Urrezko pultsera galdu dut, "Mari Carmen 24-1-61". 943 76 38 89.

Trango forro polarra galdu dut Matxiategin, gorri-beltza. 943 76 51 66.

AURKITU

Paparreko orratz bat topatu dugu Lasa jatetxean. 943 76 10 55.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INDUSTRIA INJINERUA
Bilbo. 23405/7

KOMERTZIALAK, 10
Markina. 23692/3

KOMERTZIALAK, 15
Bilbo. 23698/3

IGELTSEROAK, 2
Bilbo. 24338/3

MANTENIMENDURAKO PIOIA
Enkartzazioak. 24483/5

ARGIZTAPENERAKO TEKNIKARIA
Arabar Lautada. 25051/4

KOADRO ELEKTRIKOEN INSTALATZAILEA
Bilbo. 25291/5

INJINERU TEKNIKOA
Debarrena. 25628/1

INJINERU TEKNIKOA edo LH II MEKANIKOA
Debarrena. 25629/1

INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAKO INJINERUA
Bilbo. 25559/6

INJINERU TEKNIKOA
Markina. 25803/2

INFORMATIKA IRAKASLEA
Ibai eskuinaldea. 25617/2

KOMERTZIALA
Bergar. 25769/6

KOMERTZIALA
Zumarraga. 25773/4

EGITURA MUNTATZAILEA
Bidasoia Behea. 25901/3

KALITATEZKO PRODUKZIOKO TEKNIKARIA
Debagoiena. 25937/0

GALDARAGILEA
Ibai eskuinaldea. 25974/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.

Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA


OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09



Ur~bide

ITURGINTZA

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

**Dendan lan egiteko
NESKA**

behar dugu
abenduaren 15etik
urtarrilaren 15era

943 76 13 23

**Tabernarako
ZERBITZARIA**

behar dugu
943 76 48 26

**Zapelaitz
taberna**

ALOKAIRUAN
24 lagunendako
jantokia du

943 76 12 86

PEDRO GUALLAR Organujolea

"Organuarekiko zaletasuna berpizten doa azkenaldian bergararren artean"

Udazken Kulturalaren egitarauaren barne, Pedro Guallar organu jole bergararrak, bihar, zapatua, eskainiko du kontzertua, arratsaldeko 20:00etatik aurrera San Pedro parrokian, M^a Pilar Olaizola bere emaztearekin batera.

G. Nola ikusten duzu era honetako musikaren egoera?

E. Eskaintza musikala asko aldatu da duela urte batzuetatik hona; gaur egungo neska-mutikoez saxofoia, biolina eta abar jotzen dituzte. Horrek ez du esan nahi era honetako musika-desagertu egingo denik; zaletuok ahalginak egin beharko ditugu organua aurrera ateratzeko. Gure gizartean elizarekin lotuta ikusi izan da beti, baina errepertorioa oso zabala eta aberatsa da, eta interes pixka bat bakarrik behar da hori deskubritzeko.

G. Zu organu irakaslea zara Bilbon. Ikasle asko daukazu?



Pedro Guallar bere emazte M^a Pilar Olaizolarekin arituko da zapatuko kontzertuan.

ARGAZKIA: UDALEKO KULTURA ZERBITZUA

E. Lehen esan dizudan bezala, eskaintza musikala asko aldatu da aspaldian, eta organua baino musika tresna erosoagoak daude; kontuan hartu behar da organu bat ezin duela inork

etxean eduki, eta horrek zailtasun handia suposatzen du, organuak elizetan bakarrik daude eta.

G. Bergaran badago zaletasunik?

E. Azkenaldiko emanaldi hauekin zaletasuna berpizten ari garela iruditzen zait. Joan zen hilean, Ferruccio Bartoletturen kontzertuan egon nintzen, eta jende dezente eta giro ederra izan genuen.

G. Zer proiektu daukazu esku artean?

E. Egia esan, proiektu konkreturik ez daukagu, baina gu beti ari gara kontzertu berrien bila, erronka berrien bila, organu guztiak baitira ezberdinak, eta, beraz, baita kontzertu guztiak ere. Bergarako kontzertu hau, esaterako, nahiko bitxia da, lau eskutarako hiru pieza joko baititugu emazteak eta biok.

Kontzertuko egitaraua

"Baserriko ezkontza" baterako musika
(lau eskurekin jotzekoa, organoa)
Franz Berwal

"Mundua salbatzailearen zain"
(Symphonie-Passion Op.23ko lehen mug.)
Marcel Dupre

"Harmonies" organoarendako 1. estudioa
Gyorgi Ligeti

Prelude eta danse fuguée
Gaston Litaize

Erloju musikala baterako adagioa
(lau eskurekin jotzekoa, organoa)
L.V. Beethoven

Op. 30 re minorreko sonata
(lau eskurekin jotzekoa, organoa)
Allegro moderato
Adagio
Allegro con fuoco
Gustav Merkel



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

URRATS
TABERNA

KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92



Kultur Etxeko erakusketan ikus daitezkeen argazkietako batzuk.

Karegilearen lanbidea ezagutzen

Udazken Kulturalaren egitarauaren barruan, karegintzari buruzko erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean hileren 28ra arte. Astegunetan, 18:00etatik 21:00ak arte, eta, asteburuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Erakusketa honetan, kararria kare bihurtzeko jarraitzen den prozesu guztia ikus daiteke, bai bertan dauden panel batzuen bitartez, eta baita horretarako prestatu duten bideo baten bitartez ere.

Karegileen lehendabiziko lana kararria harrobitik ateratzea zen. Harria gurdietan karabira garraiatu ondoren,

hau erre egiten zuten. Erre aurretik baina, bedeinkapena ematen zioten. Gaur egun ezagunena eraikuntzarako erabiler den arren, karea hainbat esparrutan erabili izan da; tifusaren eta arnasestuaeren kontra erabili izan da sendagai bezala, nekazaritzan ongarrizat, eta baita, esan bezala, eraikuntzan ere.

Erakusketaz gain, gaur, eguakitzan, arratsaldeko 19:30etan, karegintzaren gorabeheri buruzko tertulia bat izango da Kultur Etxean. Bestalde, domekarako Gatzagako karobiak ikustera joateko irteera bat antolatu du Kapirixo elkarteak, goizeko 9:30etan Beheko Estaziñuan irtenda.

Rage eta Nightwish zapatuan Jam aretoan

Datorren zapatuan Rage eta Nightwish taldeen kontzertua izango da Jam aretoan, gaueko 22:00etan.

Rage talde alemaniarrek 1986an kaleratu zuen bere lehendabiziko diskoa, eta ordutik hona beste hamaika argitaratu dituzte. Arrakastarik handiena, hala ere, hamarkada honen hasieran lortu zuten "Trapped", "Missing Link" eta

"Black in Mind" trilogiarekin. Oraingo honetan, "Ghosts" beraien azken diskoarekin datozkigu.

Nightwish, berriz, Finlandiatik datorren talde gaztea dugu. Talde honi buruz aipagarriena, Tarja abeslariaren interpretazio izugarria da.

Horra hor, bada, zapatu gauerako plan aproposa.


erreseinak



Martin Etxeberria
Katiluaren ipurdia
Poesia

Honako hau du bere lehen poesia liburua Martin Etxeberria zarauztar idazle gazteak. Azpimarratzekoa da poeta gazte honek bere poemetan erakusten duen freskotasuna eta naturaltasuna. Poema asko ipuin laburrak balira bezala irakurtzen dira. Poetak zerbait esan nahi du, zerbait komunikatu nahi du, eta horretarako ulergarria behar du izan. Gainera, gaiak ere egunerokotasunean oinarritzen dira, ez dira inora ez garamatzaten hausnarketa filosofikoak. Aukera ederra, beraz, poesia irakurtzen hasi nahi duenarentzat.

-Aiberdania. 90 orr. 1.600 pezeta.



PiLT
"3"
Rock gogorra

Joan zen hilean kaleratu zuen talde mungiarrek bere hirugarren diskoa, eta "3" da, hain zuzen ere, azken lan honi jarri dioten izenburua. 11 abesti biltzen dira bertan, eta testu ilunak dira nagusi abesti guztietan, gehienak intimistak, baina baita gizarte gaien ingurukoak ere. Aurreko diska, "Denbora", esperimentalak izan zen, eta oraingo honetan zuzeneko emankizunen indarrari heldu nahi izan diote abesti laburrekin eta melodia eta indar handiagoarekin. Agerian utzi dute berriro ere gauza ezberdinak eta erronka berriak atsegin dituztela.

-Esan Ozenki. 2.100 pezeta.



multimedia eta animazioa diseinu grafikoak
internet web diseinu industrialak ofimatika
photoshop maketazioa infografia 3D

Zure ikasketa zentru berria

Matrikula zabalik!


Irakasle bat taldeko ikasleko ordenadore bana

Matrikula zabalik!

Aula XXI, Mintegi kalea, 5 (tokieder) 20570 BERGARA

943-76 59 20

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Talaiak. 2. Esku itxi. Zamorako ibilgailuetan.
3. Zaude. Krudel. 4. Hozki. Interjekzioa. 5. Neguko janzkia. India. 6. Alderantziz, ipar-orratz. Ez emeak.
7. Berrogeita hamar. Ametsa. Lehenengoa.
8. Zuloaren erdian. Begirada. Dago. 9. Pisua.
- Janari-ongailu. 10. Zauri txikia. Edari alkoholdu.

Goitik behera

1. Hegazti-mota. 2. Vi. hilea. Euskal sindikatu abertzalea.
3. Harro jarri. Masurioa. 4. Zaratak. 5. Titanioa. Kasik. Bokal errepikatua. Iodoa. 6. Burdinola. Gauza, gaia.
7. Abeslari. Bat. 8. Bokala. Modu-atzizkia. Detektagailu.
9. Basapizti-mota. Batrazio-mota.
10. Gaubeako auzoa. Noren atzizkia.

Soluzioa

10. Karanka. En.
9. Azenta. Apo.
Kantari. 1. 8. 1. Ki. Rader.
5. Ti. La. Co. 1. 6. Oia. Kapaza.
3. Herrotu. Ma. 4. Abarrotsak.
2. Botamizte. 2. Ekama. LAB.
Gorik behera
3. Zama. Zape. 10. Ebakia. Ron.
7. L. Utopia. A. 8. Ul. Soa. da.
3. Auzokata. In. 6. natl. Arrak.
2. Zeta. Anker. 4. Tirri. Tirai.
1. Beharokak. 2. Ukabila. Za.
Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein ikastetxeren ondoan daude lorez egindako letra hauek?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Non ateratakoak dira Ion Suinagak Nahikarin erakusten dituen argazkiak?
A- Txinan
B- Mexikon
C- Ekuadorren
2. Nor da "Bai... baina ez" eleberriaren egilea?
A- Mariasun Landa
B- Laura Mintegi
C- Espido Freire
3. Bergarako zein jokalarik sartu zituen bi gol Santurtziren kontrako partiduan?
A- Gorka Dueñasek
B- Oxel Apraizek
C- Jokin Mendiaratzek



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Manuela Artolarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Manuelari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Goenkalea** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Suchard
txokolate turroia, 300 gr.
395 PTA!

Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Leonardo, Irala kalian dagoen lokomotora itxurako postuan gaztain erriak saltzen egoten da. Arrasaten be egoten da, eta, orduan, Bienvenido izeneko gaztia etortzen da. Biak Santanderkuak die, eta Gasteizen bizi die.

Lokomotoraren ordutegixa?

Arratsaldeko 4etatik 9etara, egunero.

Noiz arte?

Hiru hillebeterako etorri gara, urtarrillaren 15era arte.

Gaztaiñak gustatzen jatzu?

Egia esateko, ez.

Nungoak die gaztaiñak?

Leongoak, Bierzo aldekuak.

Ondo saltzen die Bergaran?

Batez be, astebukaeran.

Urtaro bat?

Otsailla, oporrak dauzkat eta.

Asteke egunik onena?

Domekia. Futbola egoten dalako.

Lan egitten dozu domeketan?

Bai. Egunero egitten dot.

Zure lanian zer dozu atseginen?

Ezebez. Ez jat lan egittia gustatzen.

Lanbidez aldatzekotan, zer?

Futbolarixa izan nahiko neuke, asko kobratzeko.

Buzoa jazten ez dozunian,

zer eruaten dozu?

Europa normala: bakeruak, alkondaria...

Juerga zalia?

Ez, bapez.

Musika gustatzen jatzu?

Reaggea.

Telebista zalia? Programa bat?

Bai. Oraintxe kendu dabe: Stargate.

Afiziorik?

Bai, irakurtzia gustatzen jat.

Leonardo Saiz

Azken liburua?

Kamioia gidatzeko karneta etaratzten nabil, eta mekanika-liburua irakurri bihar dot.

Egunkarixa irakurtzen dozu?

Nundik hasita?

Bai. Lehenengo orrialdetik. Politika-orrixak eta guzti irakurtzen dot gainera.

Horoskopoa irakurtzen duzu?

Ez, ez jat gustatzen.

Kirola egitten dozu?

Orain ez, baiña ixa danetik egin izan dot, igeriketa eta golfa kenduta.

Filme bat?

Ghost.

200 milioi irabazi ezkeru, zer?

Ez dittut sekula be irabaziko.

Zenbat ordu egitten dozu lo?

Asko, 8, 9, 10...

Zerekin egitten dozu amets?

Amesgaiztuak izaten dittut normalian.

Barre egitteko?

Txiste on bat.

Eta triste jartzeko?

Triste baiño, umore txarrez jartzen naiz.

Injustizia bat?

Hainbeste dare!

Jendiaren balore inportantiena?

Zintzia eta arduratsua izatia.



IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK	PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA	HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA	IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA
Tel.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

Abenduaren 11n,
zapatua,
Santa Luzia
ospatuko dugu:

09:30
AFARIA

12:30
DISKO-MUSIKA

02:00
STRIP-TEASEA

Hartu lekua lehenbailehen:
943 76 35 51

Tartufo Jatetxea

San Juan auzoa,
Elgetako bidea,
BERGARA.



Santa Marinako abesbatza

Santa Zezilia musikarien zaindaria ospatu zen astelehenean, urriaren 22an. Bergarako Udal Musika Bandak bezperan eskaini zuen Santa Zeziliako kontzertua, eta Banda utzi berria duten kideak omendu zituen ondorengo bazkarian. Musika Eskolako ikasleek, berriz, astelehenean hainbat ekintza izan zituzten Santa Zezilia eguna zela eta.

Aste honetako erretratu zaharra ere musika-rekin lotuta dago, izan ere, bertan agertzen direnek Santa Marinako koroa osatzen zuten garai batean. Argazkia Elgetan aterata dago 1960 urtearen inguruan, eta, kantariekin batera, txistulariak eta danbolin joleak ere aritu ziren egun hartan Elgetako kaleak alaitzen. Horra hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jose Agustin Aretxaga, Roman Mujika, Gerardo Mondragon, Gotzon Barrenetxea-Arando, Jose Luis Larrañaga, Joseba Laborda, Sabin Zelaia, Marcial Garitano "Txara", Bixente Retegi, Miguel Mari Basterra, Pantaleon Oregi, Martin Arana, Andres Agirre, Genaro Suinaga, Jesus Berroya, Bixente Okina, Patxi Azkarate, Gallastegi, Juan Idigoras eta Migel Pikazarri (txapelduna).

Jarrita: Fernando Idigoras, Marino Juaristi, Migel Arizmendi, Dionisio Olabarria eta Bitor Gallastegi. Mutikoak zeintzuk diren ez dugu jakiterik izan.

*Argazkia: Bergarako Udal Agiritegia.
Juan Idigoras fondoa.*

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA




Multilens botatzeko ukipen lenteak:
6 hilebetetarako pack-a

14.900
bakarrik pta

Eta gainera,
sudadera,
zoragarri bat
opari bezala



edo koloretako
lenteak



**BAUSCH
& LOMB**

Koloretako lenteak: graduazioak (-6) dioptriak arte

Ibargarai, 16
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1
ARRASATE

J.M. Barandiaran
Enparantza
ORDIZIA



Terrano II berria

Gozatu bizitza bete-betean



T. Blanco

Amillaga 22
BERGARA

Tf. / faxa:
943 76 17 35

**Baserritarrei
eta autonomoi
DESKONTUAK**



BEEP

ZURE BULEGOAN ETA INFORMATIKA ARLOAN BEHAR DUZUN DENA

INFORMATIKA

BEEP

- ISO 9002 kalitate ziurtagiria gure ordenagailu guztietan
- 3 urteko bermea pieza eta lanorduetan
- Lehenbiziko markako pieza originalak
- Zerbitzu tekniko propioa
- Neurria egindako softwarea



BULEGOEN EGITURAKETA, INSTALAZIOA ETA EKIPAMENTUA

BEEP

- Bulegoko altzariak, bi urteko bermearekin
- Edozein motatako instalazioak
- Organitec



HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

BEEP

- Informatika ikastaroak
- Zure lanak egin eta internet erabiltzeko aukera

TELEFONIA


- Moviline / Movistar zerbitzuak



IKUS-ENTZUMENEZKO AURKEZPENAK

BEEP

- Proiektoreak, gardenkiak, audiohitzaldiak, bideohitzaldiak, arbel kopiadorak,...



INPRENTA DIGITALA

BEEP

- Inpresioak, eskaneatuak, ploteatuak, plastifikazioak, kopiak, inprenta,...
- MAC edo PC rako eta neurri guztietan



FOTOKOPIADORAK eta FAXAK

BEEP

- Aukerarik zabalena



MANTENIMENDUA

BEEP

- Ordenareen mantenimendua eta garbiketa CRC garantiarekin.



HURBIL ZERBITZU INFORMATIKOAK, S.L.



San Ignazio 4, Elgoibar 20870
 Tf. 943740850 Faxa 943742916
 e-maila: elgoibar@datalogic.es

T. Aranzadi 3, Bergara 20570
 Tf. 943769127 Faxa 943769325
 e-maila: bberrero@datalogic.es